



**Idiazabalgo**  
Udala

**OHIKO UDALBATZARRA**  
**2022ko otsailaren 24an**

**LEKUA:** Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

**LEHENDAKARIA:** Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Aloña Barandiaran Munduate (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo( EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza(EH BILDU)

Aritz Ugarte Munduate.(EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain(EH BILDU)

Ioritz Imaz Baztarrika (IZAL BAI)

Igor Ariztimuño Iparragirre (IZAL BAI)

**EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Aitzol Mendizabal Malkorra (IZAL BAI)

Andoni Gomez Aldanondo (IZAL BAI)

Iker Zabaleta Urcelai (IZAL BAI)

**IDAZKARIA:** Leire Ucin Soraluze

**DEIALDIA:** Lehenengoa.

**ORDUA:** Hasiera: 19:30etan

**GAI ZERRENDA**

**1.Aurreko akta onartzea, hala badagokio.**

loritz Imazek komentatzen du aurreko Osoko Bilkuran berak galdetu zuela ordenantzak onartzeko prozedurari dagokionez, aurretiazko kontsulta beharrezkoa ote zen, eta hori aktan jasotzea gustatuko litzaiokeela. Iñaki Arriaranek ere esaten du berak ere galdetu zuela. Idazkariak esaten die jasoko duela.

Bestalde, loritz Imazek dio kirol ekipamenduen erregelamenduari buruz, aktan jasotze ndela berak esan zuela "erabiltzaile" kontzeptua iada definituta zegoela. Berak azpimarratzen du, aktan adieraztea nahi duela aurreko osoko bilkuran



## Idiazabalgo Udala

esandakoa, hau da, ordenantzak aplikatzeko direla, eta momentuan indarrean zegoen ordenantza aplikagarria zela arau haustea izan zen momentuan.

### 2. Dekretuen berri ematea.

Inork ez du ezer komentatzeo Dekretuei buruz.

### 3. Idiazabalgo Udaleko ordenantza testu bateratuaren aldaketa onartzea, hala badagokio.

Ordenantza testu bateratuan ondorengo aldaketak egitea proposatzen da:

- Ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokion eranskina:

#### ERANSKINA

#### ANEXO

1.1. Hirilur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa:.	% 0,21315	1.1. Tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Urbana: 0,21%.
1.2. Industria edo zerbitzu eremuetan kokatuta dauden hiri ondasunentzako:	% 0,61.	1.2. Para bienes urbanos situados en zonas industriales o terciarias:
1.3. Landa lur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa:.	% 0,81395	1.3. El tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Rústica:

Kontuan harturik Ondasun Higiezinaren gaineko zerga arautzen duen uztailaren 5eko 12/1989 Arau Foralaren arabera,

*“4. Hiri-izaerako ondasun higiezienei dagokienez, Bi karga-tasa gehitu ahal dira:*

*- Bat, orokorra, 1.000 biztanleko 4ko mugaraino.*

*- Beste bat, 1000eko 6ko mugaraino,*

*Lurzoru industriala edo hirugarren sektorekoa, balioespen-txostenen arabera*

*Erabilera duten eraikinetan kokatutako finken kasuan izan ezik.*

*Ondorioz, egun indarrean dagoen Ondaun higiezinaren gaineko zergari dagokion Eranskineko 1.2. puntua aldatzea proposatzen da.*

1.2. Industria edo zerbitzu eremuetan kokatuta dauden hiri ondasunentzako:	% 0,60.	1.2. Para bienes urbanos situados en zonas industriales o terciarias:
--	---------	---

- **6.10 Tarifa puntuan aldaketa:**

#### 6.10.3. Zelaako kiroldegia:

##### b.- Soinketa gela

#### 6.10.3. Polideportivo Zela.

##### b.- Sala de gimnasia



## Idiazabalgo Udala

### Sarrera (orduko)

5 €

### Entrada (por hora)

Sarrera hobaritua Ikasturte osorako eskaria denean

2,5 €

Entrada bonificación, cuando es solicitud de todo el curso escolar

### 6.10.8 Kale Nagusia 10. Kultur sormenerako ekoizpen-lokalak erabiltzeko erreserba

### 6.10.8 Reserva del uso de los locales para la creación y producción cultural

Erabilera Fabiana Zudaire musika lokalaren araudian ezarrita dago.		La regulación el uso está establecida en el reglamento de los locales de música Fabiana Zudaire.
Sarrera	5 €	Entrada

10.7. Gimnasioa 47

10.7. Gimnasioa 47

G. Gazte txartela edo ezgaitasun txartela aurkezten duten herritarrek. Urte osoa	104,54 €	G. Ciudadanas/os que tengan el carnet joven o tarjeta de discapacidad Bono anual
---	----------	---

10.9.8. Toki itxietan egiten diren Ikuskizunetarako eta beste saio batzuetako sarrerak (kontratazio eta kudeaketaren gastuak 7.000 €-tik gorakoak direnean):		10.9.8. Toki itxietan egiten diren Ikuskizunetarako eta beste saio batzuetako sarrerak (kontratazio eta kudeaketaren gastuak 7.000 €-tik gorakoak direnean):
Gazte txartela edo desgaitasun txartela	14,00 €	Gazte txartela o tarjeta de discapacidad

### SALBUESPEN TASARI DAGOKION ERREDKAZIOA ALDATZEA

Salbuespena aitortzen zaie bizikidetzak unitatea DSBE, DSBL edo GLL jasotzen duten pertsoneri, eta Gizarte Zerbitzuen Sailak txosten teknikoak igortzea derrigorrezkoa izango da. Gainontzeko kasuetan, Gizarte Sailaren txostena beharrezkoa izango da.		Se reconoce la exención a favor de aquellas personas cuya unidad de convivencia es perceptora de RGI, AGI o AES, y será perceptivo un informe técnico emitido por el Departamento de Servicios sociales. En los demás casos, será necesario el informe técnico del Departamento de Servicios Sociales.
---	--	---

### ERREDAKZIOAREN ORDEZ



**Idiazabalgo**  
Udala

**HORRELA IDAZTEA:**

Salbuespena aitortzen zaie bizikidetzaren unitatea DSBE edo GLL jasotzen duten pertsonen, eta Gizarte Zerbitzuen Sailak txosten tekniko (inkluzio helburua oinarritzat hartuta) igortzea derrigorrezkoa izango da. Gai horietan, Gizarte Sailaren txostena beharrezkoa izango da (inkluzio helburua oinarritzat hartuta).	Se reconoce la exención a favor de aquellas personas cuya unidad de convivencia es perceptora de RGI o AES, y será perceptivo un informe técnico emitido por el Departamento de Servicios Sociales (en base al objetivo de inclusión). En los demás casos, será necesario el informe técnico del Departamento de Servicios Sociales (en base al objetivo de inclusión).

**Idiazabalgo Udalen deitutako hautaketa prozesuetan parte hartzeagatik tasa ezartzea:**

**- 20 Euro deialdi bakoitzeko**

Iritz Imazek, Izal Bai Udalen Taldearen izenean, esaten du beraien ustez Fabiana Zudaire lokaleko tasa horiek kendu egingo lituzketela. Aloña Barandiaranek, EH Bilduko zinegotziak erantzuten dio etorkizun hurbilean hitzarmen bat sinatzeko asmoa dutela lokal horren erabiltzaileekin, baina baldintzak zehaztu behar dituztela.

Puntuak bozkan jartzen dute eta hau da emaitza:

**Aide:** 6 boto Iñaki Alberdi, Aloña Barandiaran, Ioana Prados, Aritz Ugarte, Iñaki Arriaran, Eunate Elio

**Abstentzioa:** 2 boto Iritz Imaz, Igor Ariztimuño

Beraz, Idiazabalgo udaleko ordenantza testu bateratuaren aldaketa onartzen da.

**4. 2021eko abenduaren 14ko Osoko Bilkuran onartutako Osagarri personal iragankorraren izaera xurgaezina eta errebalorizagarria onartzea, hala badagokio.**

**Txosten juridikoa**

**Gaia: Lanpostuen balorazioaren ondorioz, 2021eko abenduaren 14ko Osoko Bilkurak onartutako osagarri pertsonal iragankorrari buruzko erabakia berrestea**



## Idiazabalgo Udala

### **Lehenengoa. Aurrekariak**

2021eko abenduaren 14an izandako Ohiko Osoko Bilkuran honako puntu hau bozkatu zen.

#### **4. Lanpostuen balorazio prozesuaren ondorioz, Idiazabalgo udaleko Lanpostuen Zerrendaren aldaketa onartzea, hala badagokio.**

##### **Sei aldeko boto eta hiru abstentziorekin honako hau ONARTU zen:**

- Idiazabalgo udaleko behin-behineko langilean lanpostua kontsolidatuz gero, Udalak langile horiei osagarri pertsonal iragankorra mantentzea, hau da, beraien baldintzak bere horretan uztea.

Kontutan harturik Lanpostuen Balorazio prozesuan 2019ko apirilean hasi zela, honako hau proposatzen zaio Ogasun Batzordeari:

- Lanpostuen ordainsarrietan aplikatuko diren igoerak, 2021eko urtarrilaren 1etik atzerapenarekin ordaintzea, eta ordainketa horiek bi urteko epean egitea.

Lanpostuen zerrendaren aldaketari dagokionez, honako hau proposatzen zaio Ogasun Batzordeari:

- Puntuaren prezioa 25,87 eurotan ezartzea

- Lanpostu bakoitzaren azterketa eta puntuaren prezioa aplikatu ondoren aurkeztu diren balioak aldatzea Lanpostuen zerrendan.

Erabaki horrek ez du argi uzten momentu horretan aktibo dauden langileei(karrerako eta behin-behineko funtzionarioak eta aldi baterako lan-kontratupekoak eta lanpostua jabetzan dutenak) osagarri pertsonal iragankorra dagokien; gainera, horren izaera definitzea falta da.

Idiazabalgo Udalean langileen ordezkariak eta udal-ordezkariek negoziatu dute lanpostuen balorazioaren ondorioz ordainsariak murriztu zaizkien pertsonentzat osagarri pertsonal iragankorra aplikatzea. Gainera, erabaki da osagarri pertsonal iragankor hori ezin izango dela xurgatu, betiere alderdi horrengatik ordainsaririk inoiz murriztu ez zaien enplegatuei sortu dakiekeen segurtasunik eza eta/edo kaltea saihesteko.

##### **Bigarrena.- Aplikatu beharreko legeria honako hau da:**

- **6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa**

- **207/1990 Dekretua, uztailaren 30ekoa, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariei buruzkoa.**

- **UDALHITZ Euskadiko toki-erakundeentzako lan-harremanen esparru sektoriala eratzen duen protokoloa.**

##### **Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean**

**xedatutakoaren arabera. Euskal funtzio publikoa osatzen duten langileen erregulazio-esparrua osatuz, legeak lan-kontratuak langileak, aldi baterakoak eta bitarteko funtzionarioak jasotzen ditu. Horientzat, estatutu-araubidea berdin aplikatzea aurreikusten du, bereizketarik gabe, harremanaren izaerak berak eragindakoak izan ezik, eta, beste alde batetik, beharrezko mekanismoak**



## Idiazabalgo Udala

*arbitratzen ditu, iragankortasunean sortzen eta justifikatzen diren egoerek izaeraz kanpoko iraunkortasun-estatusa lortzea saihesteko.*

**Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen bederatzigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera, lege honetan aurreikusitako ordainsari-sistema aplikatzearen ondorioz jasotzen diren ordainsari finkoak eta aldizkakoak murrizten badira, langileek osagarri pertsonal eta iragankor bat jasotzeko eskubidea izango dute, aldearen arabera, eta osagarri hori xurgagarria izan daiteke.**

**Euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariei buruzko uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriaren arabera:**

*Osagarri pertsonala lanpostuak sailkatzeko antolaketa-prozesuetatik soilik eratoritzen bada, osagarri hori ez da xurgagarria izango, hurrengo aurrekontu-ekitaldietan aplikatu beharreko eguneratzeei kalterik egin gabe.*

Bestalde, lan-baldintzak arautzen dituen akordioak (**UDALHITZ**), **85. artikuluan**, honako hau aipatzen du: ".aldi baterako osagarri pertsonala" eta "1.osagarria". Akordio honetan aurreikusitako lansari-sistema osorik aplikatzearen ondorioz, jasotzen ari ziren ordainsariak murrizten badira, eragindako funtzionarioek osagarri pertsonal eta iragankor bat jasotzeko eskubidea izango dute, desberdintasunagatik. Osagarri hori une bakoitzean ezartzen diren legezko xedapenen arabera eguneratuko da.

Osagarri personal iragankorra jasotzeko eskubidea izango dute 2021eko abenduaren 12an onartutako Lanpostuen zerrendan ezarritako ordainsariak baino handiago jasotzen dituztenak, eta 1999/70/CE zuzentarauetatik eratorritako jurisprudentziaren arabera, kontratu edo izendapen motaren araberrako diskriminaziorik egin gabe.

Amaitzeko, gogoratu osagarriak pertsonalak direla eta iraungi egin behar direla lanpostu horiek beste langile batzuek betetzen dituztenean, legezko bideen arabera.

Horixe da nire iritzia, txosten hau zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jarriz.

Idiazabal, 2022ko otsailaren 11ean.

Idazkari-kontuhartzailea  
Leire Ucin Soraluze



## Idiazabalgo Udala

loritz Imazek dio bere ustez txosten horren arabera, etorkizunera begira ez dela bermatzen “osagarri personal iragankorra”ren izaera ez xurgagarria eta errebalorizagarria. Idazkariak erantzuten dio, gai oso polemikoa dela. Berak txostena egiterako orduan Euskal Autonomi Erkidegoko araudia hartu zuela kontuan, eta Eusko Jaurlaritzako giza baliabideetako sailan esan ziotela lehenengo aldia izanda balorazio bat egiten dela Udalean, posible izango litzatekeela izaera hori ematea.

loritzek esaten du, beraien ustez udalak langileen ordainsariak mantentzea bermatu behar duela. Alkateak erantzuten dio balorazio bat egin duela enpresa espezializatu batek, eta hori objektiboa dela kontsideratzen dela, bestela ez duela inolako zentzurik balorazio bat egitea.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

**Aide:** 6 boto Iñaki Alberdi, Aloña Barandiaran, Ioana Prados, Aritz Ugarte, Iñaki Arriaran, Eunate Elio

**Abstentzioa:** 2 boto loritz Imaz, Igor Ariztimuño

Ondorioz, honako hau ONARTZEN dute:

**LEHENENGOA.** Idiazabalgo Udaleko Lanpostuen Zerrenda behin betikoz onartzen denean, soldatak jeisten zaizkien funtzionario eta lan-kontratupeko langileei “osagarri personal iragankorra” ezartzea, eta honi izaera xurgaezina eta errebalorizagarria ematea.

### **5. Idiazabalgo udaleko 2022 urterako euskara sustatzeko erabilera plana onartzea, hala badagokio.**

Aloña Barandiaranek azaltzen du lau urteko eperako onartzen direla Euskara Planak, baina Idiazabalgo Udalak 2019an ez zuenez onartu, 2022. urterako egin da, martxoko dirulaguntzak eskatzeko. Hurrengo urtean, 2023-2026 epealdirako plana onartuko da.

Bozkan jartzen dute puntua eta AHO BATEZ ONARTZEN da 2022. urterako Euskara Plana.

### **6. 2022ko urtarrilaren 27an izandako Osoko Bilkuran hartutako “Idiazabalgo hiri trafikoa arautzen duen ordenantza hasieraz onartzeko” erabakia efekturik gabe uztea, hala badagokio.**



**Idiazabalgo**  
Udala

**GAIA: 2022KO URTARRILAK 27AN IZANDAKO OSOKO BILKURAN HARTUTAKO “IDIAZABALGO HIRI TRAFIKOA ARAUTZEKO ORDENANTZA ONARTZEA”, ERABAKIA EFEKTURIK GABE UZTEA**

**AURREKARIAK**

2021eko urtarrilaren 27an egindako Osoko Bilkuran Idiazabalgo hiri-trafikoa arautzen duen ordenantzari hasierako onarpena eman zitzaien.  
Hasierako onarpenari dagokion akordioa ez zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu

**Araubide juridikoa**

Urriaren 1eko Administrazio Publikoaren prozedura araubidea xedatzen duen 39/2015 Legea

**Gaiaren azterketa**

Kontuan hartu behar da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua –Aurretiko bi izapide ezartzen dituela:

- Aurreiazko kontsulta: proiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da, administrazio eskudunaren web-atariaren bidez. Bertan, etorkizuneko arauak eragin diezaiekeen subjektuek eta erakunde adierazgarriek honako hauei buruz duten iritzia jasoko da:

- A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- B) Plana onartzeko beharra eta egokitasuna.
- C) Arauaren helburuak.
- D) Beste aukera arautzaile eta ez-arautzaile batzuk.

- Ordenantza aldatzeko proiektua argitaratzea: ekimenaren testua idatzi aurreko kontsultaren kalterik gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoiei eragiten dienean, kasu honetan bezala, testua dagokion web-atarian argitaratuko da, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eskatu ahal izango zaie iritzia legeak onartutako antolakunde edo elkarteei, baldin eta arauak ukitzen dituen eskubide edo interes legitimoak dituzten pertsonak biltzen edo ordezkatzan badituzte eta haien helburuek zuzeneko lotura badute arauaren xedearekin.

Artikulu honetan arautzen diren kontsulta, entzunaldi eta informazio publikoak egiteko, arauaren hartzaile izan daitezkeenek eta arauaren gaineko ekarpenak egiten dituztenek beren iritzia emateko aukera izan beharko dute. Horretarako, haien eskura jarri beharko dira beharrezko dokumentuak, argiak eta zehatzak, eta gaiari buruzko iritzia eman ahal izateko behar den informazio guztia bildu beharko dute.





## Idiazabalgo Udala

Bestalde, 39/2015 legearen 47. artikulua honela dio:

Herri-administrazioen egintzak erabat deuseztuak izango dira hurrengo arrazioengatik:

e) Legezko prozedura erabat alde batera utzita izapidetutakoak

### **Ebazpen proposamena**

Kontuan hartuta Idiazabalgo hiri trafikoa arautzen duen ordenantza legalki xedatutako prozedura jarraitu gabe onartua izan dela, honako erabaki hauek hartzea proposatzen zaio Osoko Bilkurari:

1. 2022ko urtarrilak 27an onartutako Idiazabalgo hiri trafikoa arautzenden ordenantza efekturik gabe uztea.
2. Espediente horren gaineko jarduketak hasierako onespeneraren egintzaren aurreko unera atzeratzea.
3. Aurreko guztia egin ondoren, prozedura legezko baldintzetan izapidetzen jarraitu behar da.

Idiazabalen, 2022ko otsailaren 21ean.  
Idazkari-kontuhartzailea

Puntua bozkan jartzen dute eta AHO BATEZ ONARTZEN DA:

**LEHENENGOA.** 2022ko urtarrilaren 27an izandako osoko Bilkuran onartutako “hiri trafikoa arautzen duen ordenantza hasieraz onartzeko” erabakia efekturik gabe uztea.

**BIGARRENA.** Ordenantza jendaurrean jartzea kontsulta egiteko.

### **7. Martxoaren 8ko adierazpena onartzea, hala badagokio.**

#### **Martxoaren 8a, Nazio Feminista lortu arte**

Martxoaren 8an, Emakumeon Egunean, orain arte lortutakoa ospatzeko egunetik haratago, honaino iristeko borroka egin duen Mugimendu Feminista eta norbanakoen lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko eguna da. Ezinbestekoa da eskubideen aldeko borrokan, mugimenduaren antolakuntzak eta interpelazioetatik, jendarte guztia inplikatzeko izan duen eraginaz mintzatzea. Zentzu honetan, instituzio honi dagokion ardura hartzetik aurkezten dugu adierazpen hau.



## Idiazabalgo Udala

Esan dugu dagoeneko, pandemiak agerian utzi duela feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaugarria eta dependientea da. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan.

Genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukaezina da: emakumeek beren gain hartzen jarraitzen dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; eta azken honek gainera, prekarizazio norabidea nabarmen hartu du.

Krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Euskal Herrian, gure eskumen-esparru mugatuan, argi daukagu gure lurraldeetan gure bizitzaren burujabe ez garen bitartean ezin izango ditugula beharrezko aldaketa guztiak bultzatu: hala ere, badaude aukerak bide hori marrazten joateko, sisteman pitzadurak irekitzeko, eta, hain zuzen ere, tokikoa da eremu egokiena.

Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.

Horregatik guztiagatik, Idiazabalgo Udalak honako hau erabaki du:

- Berdintasun diagnostikoan lortutako ondorioak aintzat hartu eta **berdintasuna bultzatzeko ekintza eraginkorrek urtez-urte abian jartzea** gure berdintasun planari jarraituz eta urtero horretarako baliabideak jarritz.
- Jabekuntza Eskolari behar adina baliabide bermatzea. Emakume, nerabe eta neskatoen **ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea**, tokiko eragile feministekin batera.
- **Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak** egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.



## Idiazabalgo Udala

- **Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren eredia eta eguneko zentroyen eredia eta funtzionamendua berraztertzea**, identifikatutako beharrei erantzuteko eta lan-baldintzak duintzeko asmoz.

7. puntua bozkan jartzen dute eta AHO BATEZ ONARTZEN da.

### 8. Galdera eskaerak.

Ioritz Imazek Izal Bai udal-taldearen izenean honako galdera hauek egiten ditu:

- Dio gustatuko litzaiokeela finkatutako batzordeen egutegia errespetatzea. Alkateak erantzuten dio sei hilabeterako planning-a prestatu duela eta bidaliko diola.
- Lanpostuen balorazio prozesuari buruz, galdetzen du ea alegazioetarako epea amaitu den. Alkateak erantzuten dio baietz, orain, ogasun eta langileriaren batzordean aztertu behar direla.
- Ioritzek esaten du 2019an hasitako Udal-taldearen dirulaguntzei buruzko espedienteari jarraipena ematea gustatuko litzaiokeela.
- Akutaingo bidearen konponketak noiz egingo diren galdetzen du. Alkateak erantzuten dio esleituta daudela lanak eta pare bat hilabete barru lan horiek eginda egongo direla.
- Argiteriari buruz, Ioritzen esaten du bere ustez herriko gune batzuk ilun xamar daudela, eta nazartek enpresak egindako azterketa ikustea gustatuko litzaiokeela. Alkateak dio bidaliko diola.
- Kalegarbiketa eta jardineritza zerbitzuen harira, esaten du bileretako aktak eskatu dituela, eta konturatu dela akta horiek oso difusoak eta generikoak direla. Alkateak erantzuten dio, inporta ez bazaio hurrengo batzordean hitz egingo dutela gai horri buruz.
- Xabier Mariñelaren artegiari dagokionez, dio hurrengo batzordean gai horri heldu nahi diola. Alkateak esaten dio baietz.

Behin puntu honetara iritsita, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:25an, eta akta hau egin dut bertan erabakitakoa jaso dadin, eta beharrezko efektuak izan ditzan.

Idiazabalen, 2022ko otsailaren 24an.

**O.I**

**ALKATEAK**

**Iñaki Alberdi Iparragirre**

**IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK**

**Leire Ucin Soraluze**